

Hizkuntzaren pausoak

Euskaldunon Egunkaria, 1992-08-30: 2.

Askotan aipa izan dut hau printzipio nagusi bezala: gizakiak jasotzen dituen heredentzien artean, badira bi nagusi: jaiotzez jasotzen dituen marka fisikoak. Baina ez da berdin gertatzen hizkuntzarekin; euskaldun familian jaiotzen dena ez da euskaldun sortzen, baizik eta euskalduntasun hau jaso egin behar du; amaren tititik edaten dela esaten dugu jatorrizko hizkuntza, eta egia da esaten dena esan nahi duela. Hizkuntza, beraz, ez du gizakiak larruaren kolorea bezala jasotzen, baizik eta berri-berrian ikasi egin behar da hitzegiten, eta lehendabizi erakusten zaiona ikasten du. Normalean familia gizarte normalean bizi bada, bere herriko hizkuntza ikasiko du. Euskaldunak, du gaur, bestalde, zailtasun hau; gurasoek euskara galdu bazuten, edo galdu berrian badute edo galtzen ari badira, beren semeak ez du euskararik ikasiko. Hau da euskara erraietatik galtzeko modu bat. Gaur gure artean hain arrunta dena. Eta ez da bakarra, bada beste bat, eta hau ere oso zabaldua gure artean; gurasoak euskaraz jakin eta Franco denboran, beldurrez, edo gaur bertan zabarkeriz, etxean euskaraz hitz egiten ez dutenez. Eta katea ez da hemen amaitzen, baizik eta etxean ikasi duen euskaldunak ere eskolan eta unibertsitatean, eta entzuten dituen irrati eta telebista eta irakurtzen dituen liburuak eta aldizkariak erdaraz irakurtzen baditu egunero, zaila izango da euskaraz zekien mutilak euskaldun jarraitzea.